

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Behin-behineko Gobernua, Madrilen menpeko Nafarroa

Gobernari guztiei agintea hartu ondoren 100 eguneko epea emateko ohitura osasuntsua dute alderdiek, aginte hori egituratzea ez baita lan makala. Maria Chiviteren kasuan, ordea, 70 aski izan dira (eta uda parte tarteko, abuztuaren 2an hautatu baitzuten lehendakari)... ildo argirik ez duela ondorioztatzeko.

Urte politikoa abiatu berri, hiru kontuk ikusarazi dituzte PSNren nahi eza eta ezina, biak batera: Skolae, euskara eta ikurrina. Lehenetik hasita, Unesco saria gustura hartu du Chivitek, baina Skolae programari bere osotasunean eutsiko ote dion ez dago batere argi, eta ez soilik Pilar Mayo kargugabetu dutelako, ikastetxeetan irizpide garbirik ez dutelako jaso baizik. Euskarari dagokionez, heldu bezain laster bonba eztandarazi dute Chiviteren aurrean gertu-gertuko bi lubakieta-tik -UGT eta Nafarroako Auzitegi Nagusia- eta erantzuna ere epela izan da, iheskorra ez esateagatik (epaiak guztiz deitoragarriak badira ere, euskara balaratzeko orduan Gobernuak duela eta izango duela erabakia ez genuke ahaztu behar). Eta agian adierazgarriagoa ikurrinarekin egindakoa: ustekabeen lege berri baten inguruan Legebiltzarrean eztabaidatzeko atea ireki dio Navarra Sumari PSNk, baina eztabaidaren bukaera ilunpean utziz (Ramon Alzorritz sozialisten ele-dunak esan bezala «konfrontazioa» sustatzeko asmo-rik ez balu PSNk, ez luke orain ireki den prozesu luzearen bukaera ikurrina berriz lege debekatzea ahalbidetu behar).

Helburu bera atzematen da hiru kontuetan PSNk hartu duen posizioan: zirt ala zart egitea eskatzen duten erabakiak atzeratzeko nahia, denbora irabazteko gogoa. Eta ez da zaila zeren zain den ondorioztatzea: Espainia-ren esperoan. Izan ere, Pedro Sanchezek azaroaren 10ean garaipena berretsiz gero, Nafarroan Chivitek di-tuen gobernakide bertsuekin har lezake kargua Mon-

cloan (Unidas Podemos han, Podemos eta IU hemen; EAJ han, Geroa Bai hemen)... edota Navarra Sumako ki-de bat (Cs), bi (PP ere?) edo hirurekin (UPNko kideak izango lirateke, azken finean, Kongresuan Sanchezen aldeko bozak ematearen arduradunak). Alde ederra...

Jokaldi horretan PSOEk ezingo lukeela Nafarroako Gobernua sakrifikatu diotenek ez dituzte Nafarroako azken bi hamarkadak ezagutzen. Hiru aldiz egin du ja-da: 1996an, Suitzako kontu korrontea tarteko Javier Otano erori zenean, berehala luzatu zion UPNri alfon-bra gorria, Gobernua bertan behera utziz eta Iruñean Victor Manuel Arbeloa buru zuen zuzendaritza titerea ezarriz; 2007an, jada adostuta zegoen lauko gobernu-a osatzen utzi ez zuenean, Fernando Puras PSNko bu-ruaren jardura politikoa errotik moztuz; eta 2014an, Yolanda Barcinaren aurkako zentsura mozioa ekidin

Skolae, euskara eta ikurrinaren aferetan nabaria da denbora irabazteko PSNren nahia, Madrilen esperoan. Lehendakari izango da gero Chivite... edo Abalosek etxeratuko du

eta Roberto Jimenez etxera bidaliz. Hiru kasuotan hankaz gora utzi zuen PSOEk PSN, batere larritu gabe. Eta, inor engaina ez dadin, eskuak ez zituzten hurre-nez hurren Gonzalezek, Zapaterok eta Rubalcabak zi-kindu; lan itsusiotarako badaude Antolakuntza ardu-radunak eta Sarasate pasealekuan ederki ondo gogoratzen dituzte Cipria Ciscar, Jose Blanco eta Oscar Lopez. Orain Jose Luis Abalosi tokatuko zaio, agian.

Bitartean? 100 egun baino luzeagoa den tartea har-tu beharko dute, halabeharrez, Chivite karguan jarri duten indar politikoei, bi agertokietarako prestatzen eta adi. Eta herritarrak? Aspaldiko irakaspena berres-ten du behin-behineko gobernu honek: Nafarroa es-painiar indarren menpe uzteak hauxe dakar beti. •